

## BORROKAREN ATARIAN

EEBBk gerrarako prestatzen

LABURRARIAN

Iker Aranburu | DONOSTIA


**P**entagonoa Estatu Batuetako indar militarra Pertsiar golkoaren inguruan biltzen ari da, hortik Afganistani eraso egiteko asmoz. Operazioak *Justizia Mugagabea* izena jaso zuen, baina orain Donald Rumsfeld Defentsa Estatu idazkaria izen berri baten bila dabil. Izan ere, lehenengo izenak musulmanak irain ditzake, Koranek dioenez Ala baita betiko justizia ezar dezakeen bakarra.

Atzo goizean, *USS Kitty Hawk* hegazkinontziak –Estatu Batuek Pazifikoko Mendebaldean duten bakarra– Yokosukako (Japonia) base militarra utzi zuen eta jakinarazi ez zuten leku batera abiatu zen. Litekeena da Indiako Ozeanora edo Pertsiar golgora joatea, bertan indar militar handia biltzen ari baitira Estatu Batuak.

Pentagonoak ez du abian dauden operazioen berri handirik eman, eta jada ohartarazi du Golkoko Gerran (1991) baino informazio gutxiago zabalduko duela. «Aukera guztietarako ari gara prestatzen. Hortaz, jende mugimendu handia ikusiko dugu», adierazi zuen Victoria Clarke, Donald Rumsfeld Defentsa idazkariaren bozeramaileak, zehaztasunik emango ez zuela argi eta garbi utzita.

## Hegazkinontziak, bidean

Dirudien moduan Washingtonek Afganistani airez eraso egitea erabakitzen badu, Arabiako Penintsulan (Saudi Arabian, Kuwaiten, Bahreinen eta Qatarren) dituen baseak erabiliko ditu. Halaber baliatuko ditu inguruko itsasoetan dauden hiru hegazkinontziak eta hara doazen beste biak. Ontzi horietako bakoitzak, gutxienez, 60 gerra hegazkin ditu.



## Gerra hotsak Golkoan

**PRESTAKUNTZA MILITARRAK.** Estatu Batuak indar militar handia biltzen ari dira Pertsiar golkoan, erasoerako prest

Erasorako beste plataforma bat Uzbekistan eta Tadjikistan izan daitezke. Sobiet Batasuna zeneko bi herrialde horien laguntza eskatu dute Estatu Batuek. Uzbekistango eta Tadjikistango Gobernuek oraindik ez dute erantzunik eman eta pentsatzeko da Errusiak ez duela oso begi onez ikusiko bere eraginpean nahi dituen bi herrialdek hain era garbian Washingtoni laguntzea.

Estatu Batuetako Kongre-

suan egindako hitzaldian, George W. Bush presidenteak iragarri zuen erasoak aurki hasiko direla beharbada. «Prest egon zaitezte. Alertan jarri dut Armada eta arrazoi bat dut horretarako. EEBBek ekingo duten ordua iristen ari da», adierazi zuen.

«Terrorismoaren aurkako gerran» helburu zehatzak zeintzuk izango diren jakina ez denez, Washington era askotako indarrak biltzen ari da. Aire eraso handiak egitearren, B-1 eta B-

52 bonbarderoak bertaratzeko agindua eman du. Eraso hautatuagoak egiteko hegazkinontzietako dozenaka hegazkin izango ditu gertu.

Inondik ere ez da baztertu behar Estatu Batuek elitezko tropak erabiltzea komando estiloko operazioak egiteko. Fort Bragg-en (Ipar Karolina) egoitza duen Armadaren Operazio Berezietarako Taldea alerta egoeran jarri zuten atzo. Operazio horiek, Afganistanen ez ezik, agian «terroristak entrenatzen diren» Ekialde Hurbileko beste herrialde batzuetan egingo dituztela iragarri zuten atzo.

## Neguaren arriskuak

Erasoa bizkor egiteko beste arrazoi bat eguraldia da. Izan ere, azaroan hasi ohi da Afganistango negu hotza. «Guk ez dugu sekula neguan erasorik egiten. Mendietan oinez soilik mugi zaitezke. Ibilgailuek ez dute ezertarako balio eta astoz edo zaldiz soilik garraia daiteke materiala», azaldu zion AFP agentziari Said Muxtabak, talibanen aurka borrokan dagoen Iparraldeko Aliantzeko logistika ofizialak.

Afganistango iparraldeko eta erdialdeko haranetan -20 C graduko tenperatura izan ohi da, eta mendietan, hortik behera. Hegoaldean euri indartsuen saioa da negua.

## NAZIO BATUAK

**Annan: «NBE dago ongien kokaturik terrorismoa borrokatzeko»**

«Terrorismoaren aurkako borroka» NBE Nazio Batuen Erakundearen bitartez egiteko eskatu du Kofi Annan erakunde horretako idazkari nagusiak. «Kuraia izan behar dugu onartzeko nazioarteko komunitateak, helburu komunak ez ezik, etsai komunak ere badituela. Horiek garaitzeko nazio guztiek egin behar dute ahalegina», adierazi zuen Annanek atzo *New York Times* egunkarian.

## ERRUSIA

**Afganistanen gerrarik irabaztea ezinezkoa dela diote jeneral beteranoek**

Sobiet Batasunaren Armadarekin Afganistanen aurkako gerra egin zuten jeneralek herrialde hartan gerrarik irabaztea ezinezkoa dela ziurtatu dute. «Gure akatsak egingo dituzten beldur naiz. Militarki ezin daiteke Afganistan menperatu; ez zuen Alejandro Handiak lortu, ezta britainiarrek ere, ezta gure Armadak ere hamar urteko gerraren ostean», adierazi zuen Mahmud Garejev jeneral beteranoak. Boris Gromov jeneralaren arabera, «zoritxareez dakit Afganistanera lur soldaduak eramateak ez duela ezer onik ekarriko».

## FRANTZIA

**Zazpi lagun atxilotu dituzte EEBBetako interesen aurka egin nahi izateaz akusatuta**

DSTk zazpi lagun atxilotu ditu Bezons, Chilly-Mazarin eta Vigneux sur Seine herrietan, EEBBek Frantziar dituzten egoitzen edo interesen aurka egin nahi izateaz akusatuta. Ikertzaileek uste dutenez, litekeena da pertsona horiek zerikusia izatea uztaillean Dubain atxilotutako Djamel Begal frantziar-aljeriarrarekin. Azken hori Osama Bin Ladenen inguruko delatista da Poliziak.

## ALEMANIA

**Bi lagun biltzen ari dira Polizia**

Yemengo Ramzi Mohamed Binalshibh eta Said Bahaji marokoar-alemaniarra atxilotzeko nazioarteko agindua eman zuen atzo Alemaniako Fiskaltzak. Estatu Batuen aurkako erasoan ustez parte hartu zuten pilotu suizidak trebatzeaz akusatzen dituzte.

